



Lehenik eta behin, etxean landutakoa aztertzen hasiko gara. Haur bakoitzak irakurriko du zer taldetako kide den, zein den gehien gustatzen zaiona eta zergatik...

Taldeek laguntzen digute hobeak izaten, partekatzen, besteei laguntzen...

Aurreneko kristauak kristau talde bat osatu zuten, Jesusen jarraitzaileen taldea, eta horrela sortu zen Eliza. Ikus dezagun Bibliak sorrera hori nola kontatzen duen. Apostoluen Eginak irakurriko dizkiegu, 4, 32-37.

Aurreneko kristau haiek bezala bizi behar dugu guk Jesusen mezua, elkarri lagunduz eta daukaguna partekatuz –denbora, adibidez–. Elizan, guztiok gara garrantzitsuak. Kristau-elkartean (Elizan), denok berdinak gara, eta gure eginkizuna (mandatua) zoriontsu izatea eta inguruan ditugunak zoriontsu egitea da.

Elkartzen garen eraikina tenplua da. Kristauon tenpluak eliza du izena, musulmanenak meskita, eta juduenak sinagoga.

Goazen 19. orrialdera. Galderak irakurriko ditugu. Esan dezatela galderari zer erantzun dieten.

Orain, goazen 18. orrialdera. Bitartean, horma-irudi bat egingo dugu. Erdigunean, gure parrokiaren irudia jarriko dugu, eta, inguruan, paper batzuk itsatsiko ditugu. Paper horietan adieraziko dugu zer talde dauden gure parrokiaren, eta hurrei azalduko diegu talde horietako bakoitzean zer egiten duten:


- LITURGIA. Ospakizunetan laguntzen dute, irakurtzen, kantuak zuzentzen...
- OTOITZA. Otoitz egiteko elkartzen dira.
- BIBLIA. Biblia irakurtzeko eta komentatzeko elkartzen dira.
- CÁRITAS. Behartsuei laguntzen diete.
- OSASUNA. Gaixo daudenei ikustaldia egiten diete, ospitaleetan, zaharren egoitzetan...
- KATEKESIA. Jesusen bizitza eta mezua ezagutzeko elkartzen dira edo gara.
- GARBITASUNA. Eliza, erretorearen bulegoa, eta abar garbitzen dituzte.
- EKONOMIA. Parrokiako diru-kontuez arduratzen dira.

Horma-irudia egin ondoren, haur bakoitzari lore bat emango diogu. Lore horretan, bakoitzak idatziko du zer taldetako kidea den, katekesikoa ahaztu gabe. Gero, horma-irudian itsatsiko ditugu loreak.

Jarraian, zuhaitzaren ipuina irakurriko diegu.

Zuhaitza Elizarekin konpara dezakegu. Elizaren sustraiak Ebanjelioak dira; enborra eta adarra gu guztiok gara (apaizak, katekistak, katekesiko haurrak... kristau-elkarte osoa); fruituak, berriz, izango dira Ebanjelioak agindutakoa betetzen badugu (partekatzea, laguntzea, harrera egitea, maitatzea, eskuzabalak izatea, atseginak izatea...) lortuko ditugun gauza on guztiak. Zuhaitzean, zati bakoitza zerk osatzen duen idatziko dugu. Hostoetan, fruituak idatziko ditugu, eta zuhaitzean itsatsiko ditugu.

Bukatzeko, GURE AITA errezatuko dugu. Denborarik izanez gero, osatu hitz gurutzatuak edo ELIZA buruzko galderak.





LITURGIA

OTOITZA

BIBLIA













CARITAS

OSASUNA

KATEKESIA

GARBITASUNA

EKONOMIA





Baso handi baten erdian, zuhaitz eder eta handi bat zegoen. Bidaiari edo ibiltariak bere gerizpean esertzen ziren atsedean hartzeko eta bere adarretan txoriak kabiak egiten zituzten

Bainan egun batean adarrak esan zuten:

- Ikusten al duzue zein garrantzitsuak garen? Ikusten gaituzten guztiak liluratuta gelditzen dira gurekin eta txoriak ere pozik daude gurekin bizitzen. Zer egiten dugu guk enbor zatar eta potolo horrekin, eta egun osoan lur azpian dauden sustrai zatar horiekin?

Horrela, egun horretatik aurrera bakarrik biziko zirela erabaki zuten, inoren beharrik gabe.

Enborrak era berean esan zuen:


Zer egingo luke zuhaitzak ni gabe? Ni naiz adarrak eusten dituen eta nik ematen diot sendotasuna zuhaitzari. Beraz ni naiz indartsuena eta garrantzitsuena.

Gu bai garela garrantzitsuak esan zuten sustraiak. Zuhaitzak ezingo luke iraun gu gabe. Guk ez daukagu zerikusirik enbor zatar eta potolo horrekin, eta are eta gutxiago adar harroputz horiekin. Gaurtik aurrera, gu bakarrik elikatuko gara eta ez diogu gure izerdia inorri emango.

Eta horrelaxe egin zuten. Laister hostoak erortzen hasi ziren, enborra izerdi tantorik gabe gelditu zen eta sustraiak inoiz baino tristeagoak zeuden. Txoriak kaiolak utzi eta joan egin ziren eta jendea ez zen zuhaitzaren azpian esertzen haren itzalean babesteko... baso osoa oso tristerik zegoen zuhaitz ederra hiltzen ari zelako.

Bainan piskanaka, sustraiak, adarrak eta enborra konturatu ziren ezin zutela bakarka bizi, batak bestearen beharra zutela eta bakarka ez zutela garrantzirik baizik eta denen artean osatzen zuten zuhaitzak hartzen zuela garrantzia.

Ondorioz, sustraiak lortzen zuten elikatzeko izerdia besteekin banatzen hasi ziren, enborrak ere horretan lagundu zuen eta adarrak pozik jarri ziren lehen izerdi tantak jaso zituztenean. Dena berriro ere lehenoko modurabihurtu zen. Zuhaitza berriz ere pozik zegoen eta basoa berarekin batera poztu zen.







Gure Aita ..... zerana,  
santu izan bedi Zure .....,  
etor bedi ..... erreinua,  
egin bedi Zure nahia .....  
bezala ..... ere.

Emaiguzu gaur .....hontako  
.....

barkatu gure .....guk ere  
..... zordunei .....


diegunez gero, eta ez gu  
..... eraman

baina.....gaitzazu .....

AMEN



### Bete hitz gurutzatuak.



- A.- Parrokiaren arduraduna da.
- B.- Parrokia multzo baten zuzendaria.
- C.- San Pedroren ondorengoa.
- D.- Kristau elkarte.
- E.- Sinesleak biltzen diren eraikina.
- F.- Juduen biltokia.



# Eliza

\* \* \* \* \*  
\* Nola deitzen da gure ELIZBARRUTIA? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Zein PARROKIAkoak gara? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Nola deitzen da AITA SANTUA? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Nola deitzen da gure GOTZAINA? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Nola deitzen da gure PARROKOA? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Nola deitzen da nire KATEKISTA? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\* Nola deitzen dira katekesiko nire KIDEAK? \_\_\_\_\_ \*  
\* \* \* \* \*

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_



